

# **UDALEKO HAUR ESKOLAKO ZERBITZU PUBLIKOAREN KUDEAKETA ESLEITZEKO, LIZITAZIOA ARAUTU BEHAR DUTEN KLAUSULA ADMINISTRAZIOKO KLAUSULA PARTIKULARREN ORRIAK**

## **I. TITULUA**

### **Kontratuari buruz oro har**

#### **1.- Araubide juridiko eta Jurisdikzio aginteduna**

Zerbitzu Publikoak Kudeatzeko kontratu administratiboaren izaera izango du kontratuak eta urriaren 30eko 30/2007 Legearen 19.2 artikulua adierazitakoaren arabera, Sektore Publikoko kontratuen urriaren 30eko Legeak berak eta garatzen dituen xedapenek arautuko dute kontratua, prestatu, esleitu, ondorioak izan eta iraungitzeari buruz, eta kasu guztietan Orri honen eta kontratuaren Preskripzio Teknikoen Orrien baldintzek eta klausulek arautuko dute bai eta Zerbitzuaren Araudiak ere. Horien ordean Zuzenbide Administratiboaren gainerako arauak arautuko dituzte eta, hala izan ezean, Zuzenbide Pribatuarenak.

Kontratua aplikatu edo interpretatzeko, hura betearazteko, aldatu, bete edo suntsiarazteko sor litezkeen auzi-arazoak Aretxabaletako Udalak erabakiko ditu, eta haren akordioak berehalaxe betearaziko dira.

#### **2.- Kontratuaren helburua**

Aretxabaleta Udalerrian haur eskolako zerbitzu publikoa (0-3 urte bitartekoa, haur hezkuntzako 1. zikloa) kudeatzea du helburu kontratu honek, zeharkako modalitatea, kontzesio administratiboaren erregimenean. Kontratuaren helburu den zerbitzu publikoen kudeaketa gutxieneko baldintza (ordutegiak, egunak....) batzuetara egokituko da, eta horiek guztiak klausula teknikoaren orrian zehaztuko dira.

#### **3.- Lizitazioaren aurrekontu-oinarria**

Lizitazioaren aurrekontu-oinarria 78.000 eurokoa da, BEZ barne, eta kopuru hori hobetu egin dezakete behetik lizitatuzaileek haien eskaintzetan.

Lizitatuzaileek egindako proposamenetan eta kopuru zehaztuetan eta jakinean, eta eskaintzako prezioetan, kontratua adjudikatuz gero, eragin guztietarako, hauek sartuta daudela ulertuko da beti; zerbitzuaren gastu guztiak, zenbait kontzeptu grabatzen duten zerga, gastu, tasa eta mota guztietako arbitroei dagozkien kuotak, eta etekin industrialak.

#### **4.- Finantzaketa**

Finantzabide hauek izango ditu zerbitzuak: batetik, udal diru aportazioa, lizitazio prezioari dagokion kopurua izango dena (lizitatuzaileek hobetu dezaketena) eta, bestetik, eman beharreko jardura dela-eta, arauen arabera, beste herri administrazio batzuek eman ditzaketen dirulaguntzak, eta azkenik, kontzesionarioak zerbitzuaren erabiltzaileei hartuko diena, Udalak onartutako tarifak.

Kontzesionarioak ez dio ordainduko kanonik Aretxabaletako Udalari.

#### **5.- Aurrekontu konsignazioa**

Sektore Publikoko kontratuen urriaren 30eko Legearen 93.2 artikuluan xedatutakoa betetzeko, kontratu hau betearazteko Aretxabaletako Udalerako sortzen diren obligazio ekonomikoak erantzuteko behar diren aurrekontu kredituak daudela jasoarazten da.

## **6.- Dirulaguntzak**

Beste administrazio batzuetatik lortzeko dirulaguntzak kontzesionarioak berak kudeatu eta izapidetuko ditu, eta bera bakarrik da horren erantzule, baina hala ere dagokion araudiak ezar dezake eskabidea zerbitzuaren entitate titularrak izapidetu behar duela, eta hala den kasuetan, kontzesionarioa beharturik egongo da beharrezko den dokumentazioa ematera, bai denboraz eta bai formaz ere.

Bestela ere, dirulaguntzak kudeatzeko behar den dokumentazioa emango du Udalak, denboraz eta formaz.

Kontzesionarioak kontzeptu horren truke zuzenean kobratutako kopuruak, edozein kasutan ere, entitatearen balantzean agertu behar dira, erabiltzaileen tarifak finkatu daitezzen.

Kontzesioko udal zerbitzuaren kontzeptuaren truke Udalak kobratutako kopuruak kontzesionarioari igorpenduko zaizkio, gehienez ere haiek jaso eta hil bateko epean.

## **7.- Ordaintzeko modua**

Epe mugatutako hilez hil ordainduko da kontratuaren prezioa, kontratua abian jartzen denetik kontaktzen hasita. Kontzesionarioak fakturak aurkeztu behar ditu; zerbitzuaren arduradunak egiaztatuko ditu faktura horiek, eta hala badagokio, zuzendaritza organo aginpidedunak onartuko ditu.

Berraztertze eskatzen den egunetik eskaera onartzen den egunera arte igarotzen den aldian, lehen jarrita zeuden prezioak aplikatuko dira. Atzeratutakoak, prezioak berraztertzen ari direlako, Udalak berraztertzea onartu ostean ordainduko dira, dagokion faktura aurkeztu eta gero.

## **8.- Kontratuaren iraupena**

Hamabi urteko iraupena izango du irailaren batetik aurrera.

## **9.- Prezioak berraztertzea**

Prezioa urtero aurreko Espainiako urte naturaleko KPI oinarri harturik eguneratuko da.

Beste herri administrazio batzuetatik jasotzea espero dituzten dirulaguntzak lotuta egongo dira haiek arautzen dituzten araudi espezifikoetara, eta dirulaguntza horiek gehiago edo gutxiago izan, horrek ez du eragingo udal aportazioaren kontzeptua berraztertze, izan ere, aurreko paragrafoan aipatzen diren terminoetan eta kontzeptuan bakarrik aldatuko da, kontzesionarioak eskain ditzakeen hobekuntzen kalterik gabe.

## **10.- Kontzesionarioaren eskubideak eta betebeharrak**

1.- Kontzesionarioaren arriskuz eta zoriz egingo da kontratua.

2.- Kontzesionarioak eskubidea izango du agintaritza aginpidedunak onartutako tarifak erabiltzaileei kobratzeko, eta haiek berraztertze proposamenak aurkezteko ere.

3.- Jarduera dela-eta beste herri administrazio batzuk ematen dituzten dirulaguntzak kobratzekoa.

4.- Prezio kopurua jasotzeko eskubidea arau hauetara egokituko da:

a) Hitzartutako prezioei jarraituz, preskripzio teknikoei lotuta eta behar bezala baimendutako aldaketei lotuta benetan egindako lanak ordainduko zaizkio kontzesionarioari, beti ere egiten diren lanei dagozkien fakturak ontzat jotzen baditu Aretxabaletako Udalak, egiten doazen lanei dagozkien fakturak.

b) Kontzesionarioak ez du eskubiderik izango borondatez egindako berrikuntza edo hobekuntzak ordain

dakizkion, nahiz eta onuragarria izan Administrazioentzat.

Erreklamaziorik ere ez zaio onartuko aurrekontuetan ez datozen lanak eginez gero, baldin eta kontratazio organoaren baimenik gabe egin baditu, legez eskatzen diren formalitateei jarraituz.

Kasu batean ere ez du kontzesionarioak eskubiderik izango egindako lanak kobratzeko, paragrafo honetan eta aurrekoan xedatutakoaren kontra jardunez gero.

c) Ordaintzeko, Aretxabaletako Udalaren dagokion zerbitzuak ordainduko du, hartarako dagoen araudiak ezarritako epeetan.

Konturako ordainketa egokiaren kontzeptua izango dute egindako ordainketek, eta lotuta egon dira zerbitzuaren arduradun diren udal teknikariek egin ditzaketen txostenen ondorioz egin diren zuzenketa eta aldaketek.

5.- Orri honetan jasotzen direnez gain eta ordezkotza arauak aplikatuz gertatzen direnez gain, hauek dira kontzesionarioaren betebeharrak bereziak:

a) Kontratuaren helburua eta kontratua ezarritako mugak errespetatzea, eta uneoro bermatuko da hura behar bezala betearaziko dela.

b) Udaltzarrak emandako jarraibideak betetzea, eta udal agintaritzari eta haren agente eta funtzionario aginpidedunei zerbitzuaren ustiatzea ikuskatzen utziko die.

c) Zerbitzua abian jartzeko behar diren elementu guztiak (besteak beste, ibilgailuak, instalazioak, makineria, e.a.) bere kabuz erostea, orri honetan eta klausula teknikoetan ezarritako baldintzetan eta epeetan.

d) Pertsona nahiz zerbitzuari adskribitutako eraikinak eta altzariak jartzea Aretxabaletako zerbitzurako bakarrik, Udalak agindu edo baimentzen dituen kasuetan izan ezik.

e) Preskripzio teknikoaren orriaren aurreikusitako erantzungarritako lanak burutzea.

f) Haiek egitea lanok, eta ezingo diote laga, guztian edo zati batean, kontratua beste pertsona bati, Aretxabaletako Udalak alde aurretik baimena eman gabe, eta lotuta egongo da urriaren 30eko 30/2007 Legearen 209. artikulua ezarritako baldintzei.

g) Behin-betiko bermea ezartzearena betearaztea hamar asteguneko epean, adjudikazioa jakinarazten denetik hasita, eta hura osatzea hala behar denean.

h) Kontratua formalizatzea, adjudikazio egintzan adierazitako epean.

Epe hori ez da hamabost egun natural baino luzeagoa izango, adjudikazioa jakinarazten den hurrengo egunetik kontatzen hasita.

i) Zerbitzua aurrera eramateko pertsona kontratatzea eta lan harreman, gizarte segurantzaren eta laneko segurtasunaren osasunaren gaitan indarrean dauden xedapen guztietan ezarritakoa betetzea. Aretxabaletako Udala erantzukizunetik askatuta geratuko da, kontzesionarioak baldintzen bat bete ez duelako.

j) Hamabost eguneko epean, izan litezkeen ezintasunak eta bateraezintasunak jakinaraztea.

k) Baimena eskatzea Udalari plantillan edozein aldaketa egiteko, dela zerbitzuan beharrak daudelako, dela jubilatu, hil, borondatez baja hartu, lanetik bota, aldi batez, iraunkortasunez ezindu delako, oporrak, e.a.

l) Egoera onean mantentzea eta zaintzea, altzariak eta beste material batzuk, hala nola zerbitzura adskribitutako eraikinak, eta beregain hartuko ditu horien mantenuak, funtzionamenduak eta garbiketarako behar dituen gastuak.

m) Aretxabaletako Udalaren aginduz zerbitzua aldatzea hartzea beregain, indarrean dagoen legeriak adierazitako baldintzetan.

n) Lizitazioaren eta kontratuaren ondorioz sortzen diren gastu guztiak ordaintzea, besteak beste, aipatzekoak, Aldizkari Ofizialetan iragarkiek sortutakoak eta, hala badagokio, fidantzak jartzearen ondorioz eta eskritura publikoan, haren kopiez, kontratua formalizatzearen ondorioz sortutakoak.

o) Lizitazioak eta kontratuak sortzen dituen tributu guztiak, estatukoak eta herrikoak, ordaintzea (tasak, kontribuzioak eta zergak).

p) Lanak egitean behar direnak egitearen ondorioz beste batzuei sortutako kalte guztiei erantzutea edo kalte-ordaintzea, eta betebeharrak bete ez direlako sortzeko direnean ere, urriaren 30eko 30/2007 Legearen 198 eta 256. artikuluetan jasotzen diren hitzetan. Hartarako, kontzesionario behartuta dago aseguru poliza bat sinatzera 300.000 eurotako erantzukizun zibileko estaldura batekin, sortzen dituen eta istripu, kalte eta kalte-ordain guztien truke eta exjitu dakizkiokeenek, beste batzuei eragiteagatik zerbitzua ustiatzetik eta kontratuko betebeharrak gauzatzetik datozenean.

q) Hilero eta eskatzen zaion guztietan ematea informazio diru bilketaz, erabiltzaile kopuruaz, gorabeheraz, e.a.

r) Egindako ekintzen memorio bat egitea, zerbitzua prestatzen den urte bakoitza amaitutakoan.

s) Zerbitzuaren Araudia errespetatu eta errespetaraztea.

#### **11.- Aretxabaletako Udalaren eskubideak eta betebeharrak.**

1.- Kontzesionarioaren kudeaketaren fiskalizazioa, eta horren eraginerako, behar diren aginduak emango dizkio kontzesionarioari Aretxabaletako Udalaren dagokion zerbitzuak, ohi denez eta behar bezala eman dezan zerbitzua, kontratuan datozen klausulen arabera, eta kontuan harturik batzordeburuak edo berak delegatzen duen pertsonak zuzentzeko eta ikuskatzeko ahalmenak izango dituela.

2.- Erabiltzaileek ordaindu beharreko tarifak onartu eta kontrolatzea, eta haiek berraztertzea ere bai.

3.- Kontratua aldatzea, interes publikoko arrazoiak daudelako, beste behar batzuk edo ustekabeko kausak daudelako, baina beti mantendu behar da kontratuaren oreka ekonomikoa.

4.- Aldebakarreko moduan erabaki eta betearaztea, Administrazioaren eta adjudikatararioaren artean sortzen diren gorabeheretan.

5.- Kontzesionarioari kobratzea dagozkion kopuruak ordaintzeari buruz, araudian ezarritako epeetan ordainduko ditu Udalak.

Bete ezean, kontzesionarioak eskubidea izango du berandutza interesa jasotzeko, urriaren 30eko 30/2007 legearen 200. artikuluan adierazitakoaren arabera.

6.- Orri honetan datozen gainerakoak, eta ezartzeko arauditik sortzen direnak ere.

#### **12.- Bermeak**

**Behin betikoa:** Kontratuaren adjudikatararioak, hartutako obligazioak beteko direla bermatzeko, behin betiko bermea jarri beharko du, esleipenaren prezioaren %5ekoa, BEZ gabe. Berme hori jartzeko epea hamar laneguneko izango da, eskaintza ekonomiko onenari jakinarazten zaion egunetik kontaktzen hasita, eta berme hori itzuliko da, kontratazio organoak erabaki ostean, adjudikatararioak kontratuko betebeharrak guztiak bete eta gero edo kontratua suntsiarazi eta gero, kontzesionarioaren errua ez denean.

Indarrean dagoen legeriak aurreikusitako edozein modutara jarri ahal izango dira bermeak.

Kontratua aldatzearen ondorioz haren prezioa ere aldatuz gero, bermea berregokituko da aurreko atalean

adierazitako epe berean, kontratua aldatzearena jakinarazten den egunetik kontatzen hasita.

## **II. TITULUA**

### **Kontratua adjudikatzeko modua**

#### **13.- Lizitazioaren publizitatea**

Prozedura irekiaren bidezko lizitazioa denez, urriaren 30eko 30/2007 Legearen 126.1 eta 4 artikulua xedatutako betez iragarkia argitaratuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Aretxabaletako Udalak [www.aretxabaleta.com](http://www.aretxabaleta.com) web helbidean duen kontratugilearen perfilean.

Lizitazio honen espedientea, baldintzekin eta gainerako elementuekin, Udal honetako Idazkaritzan aztertu ahal izango da; Otalora kalea,1 goizean, 10:00 – 13:00 artean (astelehenetik egubakoitz arte), lanegunetan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutik agertzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.

#### **14.- Kontratazio mahaiaren osaketa.**

Kontratazio mahaia honela osatuko da:

- Mahaiburua: Inaxio Garro Iturrospe
- Mahaikideak: Jose Angel Antxia Bolinaga  
Araceli Herran Montoya  
Juan Antonio Martinez de Agirre Etxabe  
Fco. Javier Mendizabal Garate
- Idazkaria: Asier Mujika Altuna

#### **15.- Proposamenak aurkeztea**

1.- Udal erregistroaren bulegoetan aurkeztuko dituzte proposamenak lizitatzailerik, aipatu iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean agertzen den hurrengo egunetik 15 eguneko epean, lehen aipatu den orduetan. Eskaintzak aurkezteko azken eguna zapatua edo jaieguna izanez gero, hurrengo lanegunera arte luzatuko da epea.

Postaz ere aurkeztu ahal izango dituzte proposamenak. Hala eginez gero, hauek kreditatu behar ditu interesatuak, dagokion gordekinarekin: noiz bidali zuen hura Postetxeko bulegoan eta egun berean Kontratazio Organoari adierazi behar dio fa, telex edo telegramaz, proposamena bidali duela. Baldintza biak bete gabe ez dute onartuko proposamena, iragarkian ezarritako epetik kanpo aurkeztuz gero lizitazioa.

Telegrama hura jaso dela kreditatuko du udal idazkariak, eta noiz egin zen eta noiz jaso zen adieraziko dira, dagokion erregistro liburuan.

Edozelan ere, adierazitako egunetik bost egun natural igaroz gero proposamena jaso barik, ezein kasutan ez da proposamenik onartuko.

Ezkutukoak izango dira proposamenak eta horiek aurkezteak esan nahi du baldintzarik gabe onartzen duela enpresariak Klausula Administratiboen Orrian eta Preskripzio Teknikoen Orrian aurreikusitako guztia.

Lizitatzailerik ezingo dute aldagai edo alternatibarik aurkeztu, baina bidezkotzat jotzen dituzten hobekuntzak aurkeztu ahal izango dituzte.

Gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza batean idatzita dagoen dokumentazioari euskarazko edo

gaztelaniazko itzulpen ofiziala erantsiko zaio.

2.- Bi gutunazaletan aurkeztuko dituzte proposamenak, eta hemen jasotzen diren dokumentuak agertuko dituzte gutunazaletan:

Lehen gutunazala. Izenburua: "Aretxabaletako udalerriko haur eskolako udal zerbitzuaren kudeaketa adjudikatzeko lizitazioan parte hartzeko proposamena", azpi-izenburua "Nortasuna eta kaudimena".

1.- Enpresaren edo enpresa lizitzaileen nortasun juridikoa kreditatzen duten dokumentuak eta, hala badagokio, haien ordezkariak.

Modu hauetako batean kreditatuko da nortasun juridikoa:

a) Proposamena aurkezten duen pertsonaren NA, bere izenean edo ahaldun moduan, edo haren kopia kautotua.

b) Lizitzaileak norbere izenean ez diharduenean edo hura sozietate bat edo pertsona juridikoa denean, ahalordetze nahikoa ordezkatzeko duen pertsonal edo entitatea ordezkatzeko. Ahalorde hori behar bezala inskribatu behar da, hala badagokio, Merkataritza Erregistroan, edo norbere ordezkariarekin gero, dokumentu publikoan.

Ahalorde nahikoa Aretxabaletako udal idazkariaren iritzian egingo da eta lizitzailearen kontura joango da. Horregatik, ahalordetzearekin batera udal idazkariak askietsi behar du hura.

c) Eskaintza elkarte baten izenean aurkezten denean, eskaintzarekin batera, elkartearen eratzeko eskrituren edo elkartearen estatutuen aldatze kopia lagunduko da.

d) Eskaintza elkarte baten izenean aurkezten denean, gainera, aurkeztu beharko da dokumentu bat elkarte bakoitzeko ordezkari batek sinatua, adieraziz Elkartearen Denbora Baterako Batasunean elkarte bakoitzak duen partehartzea, eta adierazi kontratuak iraun bitartean elkarte guztien izenean Administrazioarekin ordezkariak osoa izango duen pertsonaren izena.

e) Atzerriko enpresari kasuan, Europako Batasuneko Estatuak direnean, eraketa dokumentuak ekarriko dituzte, gaztelaniara edo euskarara itzulita, eta gainera, erregistro profesional edo merkataritzako batean izena emanda dagoela kreditatuko du, Estatuaren legeriak eskatzen duenean baldintza hori edo, 390/1996 Errege Dekretuaren 1go anexoan agertzen diren ziurtapenetatik egokitzen dena aurkeztuko da.

f) Azkenik, Europako Batasunekoak ez diren Estatuak enpresari atzeritarrak direnean, Merkataritza Erregistroan inskribatutako eraketa eskritura ekarriko dute (jatorrizkoa, kopia kautotua, edo konpultsatua Aretxabaletako Udaleko zerbitzu teknikoek), eta datorren Estatuan Espainiako ordezkariak diplomatikoaren txostena, eta horretan adieraziko dute onartu egiten dutela Espainiako enpresak parte hartzea Administrazioarekin kontratua egitearen (lizitazioa EBEOan argitaratzen denean izan ezik, eta Merkataritzaren Munduko Erakundeko Kontratazioa Publikoari buruzko Akordioa sinatu duten Estatuak direnean izan ezik), enpresa estatu hartako dagokion Erregistroan dagoela, edo honen ezean, kontratuari dagokion merkataritza eremuan lan egiten duela normalean.

2.- Kaudimen ekonomikoa eta finantzaletako kreditzen du(t)en dokumentua edo dokumentuak.

Urriaren 30eko 30/2007 Legearen 64. artikuluan agertzen diren moduetako batean kreditatu behar dute.

3.- Kaudimen teknikoa edo profesionalaren kreditagiria.

Urriaren 30eko 30/2007 Legearen 68. artikuluan agertzen diren moduetako batean kreditatu behar dute.

Honetaz gain, haur hezkuntzako lehen zikloaren kudeaketan gutxienez hiru urtez aritu izana egiaztatuta beharko dute.

4.- Adierazpen erantzulea, ekainaren 16ko 2/2000 Errege Dekretu Legegilearen 20. artikuluan datozen gora-beheretako batean ere ez daudela erorita.

5.- Espainiako Epaitegi eta Auzitegien jurisdikzioak esaten duenera egongo dela adieraztea, kontratuaren ondorioz izan litezkeen intzidentzia guztietarako, eta lizitatuzaileari egokitu lekiokkeen atzerriko foru jurisdikzionalari uko egiten dio (atzerriko enpresentzat bakarrik).

6.- Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga obligazioak eta gizarte segurantza betetzen dituela agertzen duen kreditagiria, erakunde aginpidedunek egindako ziurtagiriaren bidez.

1.a, 1.b., 2, 3, 4 eta 6 zenbakietan adierazten diren agiriak ez dago zertan aurkeztu, baldin eta Aretxabaletako Udalean aurkeztu badira beste lizitazioaren batean azken urtean eta baldin eta indarrean badaude, beti ere aurkeztu zeneko lizitazioaren izena aipatzen badute. Halaber, 1.a., 1.c., 2, 3, 4, 5 eta 6 zenbakietan adierazitako agiriak aurkeztu beharrean, kontzesionario izena emandako ziurtagiria aurkeztu ahal izango du; ziurtagiri hori Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistroak egingo du.

2. Gutunazala. Izenburua: "Aretxabaletako Udalerriko haur eskolako udal zerbitzuaren kudeaketa adjudikatzeke den lizitazioan parte hartzeko proposamena eta azpi-izenburua, "Eskaintza ekonomiko eta memoria".

1.- Proposamen ekonomikoa, lizitatuzaileak edo haren ordez diharduen pertsonak sinatuko du, eta 1. eranskinean agertzen den ereduaren arabera idatziko da. Eskaintako prezioetan kontzeptu guztiak sartuko dira, zergak, gastuak, tasak eta edozein eremu fiskaleko arbitrioak, hala nola, etekin industrial.

2.- Memoria: gutxienez kapitulu bereizi hauek jaso behar ditu:

a.- Enpresaren aurkezpena, haren esperientzia, zein giza, material eta ekonomia baliabide daukan, eraikin finkoak non dauden.

b.- Aretxabaletan eman beharreko zerbitzuaren ezaugarri orokorrei buruzko azterketa, hauei buruz: zerbitzuaren antolaketa, giza baliabideak (langile kopurua, egin beharreko kontratu kopurua eta motak, e.a.)

c.- Erabili beharreko material baliabideak deskribatzea.

d.- Zerbitzuaren ekonomia-finantza azterketa, kostuetan eta diru-sarreretan xehekatuak, amortizazio epeak, zerbitzuaren erabiltzaile kopuruaren aurreikuspena eta lizitatuzaileak bidezkotzat jotzen duen izaera ekonomikoko beste edozein informazio.

e.- Orri honetako gutxieneko baldintzei buruzko proposamenak hobetzea, hala nola, zerbitzuen ezaugarriei buruzkoa, udal aportazioa murriztea, aparteko diru sarrerengatik, edo lizitatuzailearen iritziz zerbitzurako onura dakarren beste edozein.

## **16.- Proposamenak ireki eta adjudikatzea**

1.- Proposamenak aurkezteko epea amaitu ostean, garaiz eta formaz aurkeztutako dokumentuak kalifikatuko ditu Kontratazio Mahaiak eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo laugarren egunean, arratsaldeko hiruretan. Kalifikazio hori egiteko, dokumentazioari (1. gutunazala) buruzko gutunazalak irekitzeko aginduko du mahaiburuak eta horietako bakoitzean agertzen diren dokumentuen zerrenda ziurtatuko du idazkariak. Aurkeztu den dokumentazioan akats materialik ikusiz gero Mahaiak, hala iritiz gero, hiru astegun baino luzeagoa ez den epea eman ahal izango du, akatsa zuzendu dezan lizitatuzaileak. Behar den dokumentazioa gutunazala itxita dagoela aurkeztuko da gutunazalak hasiera batean eman ziren bulego berean, lehen adierazi den ordutegian.

Une berean, epaimahaiak aurkeztu diren proposamenak irekiko ditu Mahaiak jende aurrean (2. gutunazala) eta aktarekin eta adjudikazio proposamenarekin batera, adjudikatzeke irizpideen ponderazioa barne hartuko du kasu guztietan, kontratua adjudikatu behar duen kontratazio organoari bidaliko dio.

Proposamena egin baino lehen, egoki irizitako eta kontratuaren helburuarekin lotutako txosten teknikoak eskatu ahal izango ditu Mahaiak.

Plikak ireki eta hamabost eguneko epean egoki irizitako txosten teknikoak aztertu ostean, Kontratazio

Mahaiak Irekiera Akta eta adjudikazio proposamena bidaliko dizkio kontratazio organoari, aukera den enpresaren alde, hurrengo klausulan aipatzen diren adjudikazio irizpideak ponderatu ostean.

#### **17.- Lizitazioa adjudikatzeko irizpideak**

Irizpide hauei jarraituz erabakiko da lizitazioa:

1.- Eskaintza ekonomikoa (proposamen ekonomikoa): 55 puntu.

Kontratuaren prezio osoaren gaineko, beheranzko zenbatekorik handiena, BEZ barne, 55 punturekin baloratuko da; gainontzeko eskaintzei proportzionalki egokitutako puntuazioa emango zaie, hirukote erregela sinplearen prozedura erabiliz.

2.- Zerbitzuaren pedagogia eta asistentzia proiektua: 15 puntu.

3.- Zerbitzua kudeatu eta ustiatzeko proiektua: 15 puntu.

4.- Preskripzio teknikoaren orrian proposatutako hobekuntzak: 15 puntu.

2, 3 eta 4. irizpideak hezkuntza arloko erakunde publiko batek aztertuko ditu.

#### **18.- Adjudikatioari eskatu zaizkion dokumentuak**

Eskaintza ekonomiko onena aurkezten duenari horren berri ematen zaionetik hamar eguneko epean, dokumentazio hauxe aurkeztu behar du:

a.- Behin betiko bermea eratu izana kreditatzen duen agiria.

b.- Orri honetako 10.5.p klausulan pentsatutako kontingentzia guztiak estaltzen dituzten aseguru polizaren kopia.

c.- Adjudikatioari enpresa talde bat izanez gero, kontratua sinatu baino lehen, Enpresen Aldi bateko Batzea legez eratu izana kreditatu behar du, eta haren IFK agiria aurkeztu.

### **III. TITULUA**

#### **19.- Kontratua hobetzea**

Kontratazio organo aginpidedunak adjudikatuz hobetuko da kontratua.

#### **20.- Formalizatzeko dokumentua**

Dokumentu administratiboan formalizatu behar du kontratua kontzesionarioak, hamabost egun naturaleko epean, kontratuaren adjudikazioa jakinarazten den hurrengo egunetik kontaktzen hasita. Baldintza hori bete ezean, kontzesionarioari egotz dakizkiokeen kausengatik, kontratua suntsiarazteko akordioa hartu ahal izango du Administrazioak.

Eszkritura publikoan egin nahi izanez gero kontratua kontzesionarioak, haren kontura joango dira eskritura horren gastuak.

## **IV. TITULUA**

### **Kontratua betearaztea**

#### **21.- Kontratua hasi**

Kontratututako lanak 2011ko irailaren batean.

Orri honetan eta klausula teknikoen orrian eta zerbitzuaren araudian datozen klausulei lotuta betearaziko da kontratua, eta hura interpretatzeko Aretxabaletako Udalean zerbitzuaren arduradunak ematen dituen jarraibideen arabera.

Kontratua aldatu ahal izango du Udalak, interes publikoko arrazoiengatik, beste behar batzuk daudelako edo ustekabeko arrazoiak daudelako, kontratuaren oreka ekonomikoa mantenduz.

#### **22.- Epeak betetzea**

- 1.- Kontzesionarioa behartuta dago jarritako edo berak eskainitako epeak betetzera.
- 2.- Lanak geldiarazi, eten eta bertan bera utziz gero, hitzartutako epean ez egitearekin parekatuko da.
- 3.- Kontzesionarioak zerbitzua berandu betetzeak ez du errekeritzen Administrazioak alde zuretik interpelatzea edo ohartaraztea.
- 4.- Penalitateak ordaintzearenak ez du baztertzeko Udaltzako izan dezakeen eskubidea kalte ordaintzeko, kontzesionarioari egotz dakizkiokeen atzerapenengatik sortutako kalte-galeren truke.

#### **23.- Zerbitzuaren kontrola.**

Zerbitzuaren kudeaketa kontrolatuko du Udalak eta, hartarako, edozein unetan, zerbitzua, instalazioak eta lokalak ikuskatu ahal izango ditu.

#### **24.- Hutsegiteak**

A) Hutsegite arinak izango dira:

- a.- Atzeratzea kontzesionarioa bere obligazioak bete behar dituenean.
- b.- Udalak emandako jarraibideetan desobedientzia arinak.
- c.- Gabezia arinak zerbitzua ematean, lekua behar bezala izatean, lokalak eta tresnak garbi izatean eta eraikinak eta altzariak erabiltzean.
- d.- Erabiltzaileei zor zaien errespeturik eta arretarik ez izatea.
- e.- Estatutako datuak eta azterketak ematean, atzeratu edo akatsak izatea, enpresari egotz dakizkiokeenak.
- f.- Hainbat arrazoi dela-eta zerbitzuan gerta litezkeen aldaeren komunikazio falta.
- g.- Udalak emandako aginduak betetzean atzeratzea, beti ere atzeratze hori 24 orduetik gorakoa ez bada, eta hala bada, hutsegite larritzat hartuko litzateke hutsegitea.

l.- Erabiltzaileekin gizalegez ez jokatzeko.

B.- Hutsegite larriak izango dira.

- a.- Hutsegite arinak behin eta berriro egitea.
- b.- Bere langileriaren portaeraren kontrolerako enpresa egiterakoan zabarkeriaz jokatzeko, erabiltzaileei

buruz nahiz udal araudia zorrotz betetzeari buruz, eta bereziki kontratu hau arautzen dutenak, hala nola tarifa kobratzean akatsak, e.a.

c.- Kontzesionarioaren jardunak eraikinaren baliogalera ekartzen duenean.

d.- Emandako zerbitzu publikoa behar bezala erabiltzen ez denean.

e.- Kontzesioak helburutzat ez duen jarduera bat egitea.

f.- Jartzen den ordutegia ez betetzea.

g.- Kontzesionarioaren oinarrizko betebeharrean arau hauste larria.

h.- Kontratuan aipatzen diren lanak geldiarazi edo etetea hiru egunean, ezinbesteko arrazoirik ez badago.

i.- Baimendutakoak baino prezio handiagoak jasotzea.

j.- Orrietan adierazitakoez gainera, edozein baldintza ez betetzea kontzesionarioak edo, haren eskaintzan, eta bereziki kontzesionarioaren obligazioak ez betetzea, orri honetan hutsegite arin edo larri-larri moduan tipifikaturik ez dauden 10. klausulan aurreikusitakoak.

C.- Hutsegite larri-larriak izango dira.

a.- Kontratututako zerbitzuak ematen ez hastea orri honetan ezarritako epean ezinbesteko kausen ondorioz ez bada.

b.- Kontratututako zerbitzuak geldiaraztea edo ez ematea hiru egun baino gehiagoko aldian, ezinbesteko kausen ondorioz ez bada.

c.- Zerbitzua ematea pertsonen segurtasunari eragiteko moduko baldintzetan, arrisku larria eta zuzeneko eragiten dutenean.

d.- Ikuskatze zerbitzuen jarduerari uko egitea edo oztopoak jartzea, haiek ezarrita dituzten legez edo arauzko egitekoak burutu ditzaten galarazteko.

e.- Titulaziorik gabe edo lanbide trebetasunik gabe zerbitzu publiko egitea.

f.- Zerbitzua bertan bera utzi edo etetea, kontzesioaren epea amaitu gabe egonda, Administrazioaren baimenik gabe.

g.- Kontratatu den zerbitzu publikokoak ez diren helburu eta xedeetarako jartzea zerbitzuari adskribitutako materialak, edozein modalitate edo titulupean, aurretik Udalaren baimena izan gabe.

h.- Hutsegite larriak behin eta berriro egitea.

Aipatutakoaz gain, kontratua betetzeko berandutuz gero adjudikatarioa, urriaren 30eko 30/2007 Legearen 196. artikulua ezartzen duena aplikatuko da.

## **25.- Santzioak**

Kontzesionarioak egindako hutsegiteak Alkatetzak santzionatuko ditu honela:

- Hutsegite arinak 60tik 150 euroko isunaz santzionatuko dira. Kontratua hautsiko da kontratuaren urtean 15 hutsegite eginez gero.
- Hutsegite larriak 150etik 300 euroko isunaz santzionatuko dira. Kontratua hautsiko da kontratuaren urtean 10 hutsegite eginez gero.
- Hutsegite larri-larriak 300etik 450 euroko isunaz santzionatuko dira eta behin betiko bermea galduko

du, eta zenbateko bereko beste bat jarri beharko du kontzesionarioak, edo kontratua hautsiko da, hutsegite larri-larritzat kalifikatutako b) eta c) hutsegiteak izanez gero.

Santzioez gain, kalte-ordain bat ordaindu behar dio kontzesionarioak udalari, egin ez den zerbitzuaren balorazioari, aplikatu ez diren bitartekoei, e.a.i dagokien zenbatekoaren truke.

Ezarritako isunen kopurua hileroko zerbitzua ordaintzerakoan murriztuko da ziurtagirietatik, edo jarritako bermetik.

## **26.- Kontratua lagatzea eta birkontratazioa**

Urriaren 30eko 30/2007 Legearen 209 eta 210. artikuluetan xedatutakora egongo da.

## **V. TITULUA**

### **Bahitzea, erreskatatzea, balio galtzea**

#### **27.- Bahitzea**

Zerbitzu publikoa ondo ematea arriskuan jartzen duen izaera larriko arau-haustean eroriz gero kontzesionarioa, aldatu edo gauzatzeko agindu desobeditzea barne, kontzesioa bahiketa deklaratu ahal izango du Udaltzarak, behin behinekoz aseguratuzeko zerbitzua edo zuzenean kontratua hausteko.

Udaltzaren akordioa kontzesionarioari jakinaraziko zaio, eta horrek, jarri zaion epean, zuzendu ezean akatsa, bahiketa gauzatu da.

Edozelan ere, benetan kalte egindako gaitz-kalteak ordainduko dizkio kontzesionarioak udalari.

Bahiketaren arabera, Administrazioa zerbitzuaren funtzionamenduaz arduratuko da zuzenean, eta hartarako kontzesionarioaren pertsonala eta materiala erabiliko ditu, zerbitzua emateko baldintzak aldatu ahal izan gabe.

Helburu horrekin, kontu-hartzaile tekniko bat izendatuko du Udaltzarak, eta osorik edo zati batean enpresaren zuzendaritzakoak ordezkatu ditu.

Kontzesionarioaren kontura eta arriskuz egingo du ustiaketa; bahiketa bukatutakoan, gastu denak ordaindu ostean gertatzen diren saldo aktiboak emango zaizkio kontzesionarioari, bai eta kontu-hartzailearen hartzekodunak ere.

Bahiketa aldi bateko izango da, eta gehienez ere ez du iraungo urte baino gehiago, ezta kontratua bukatzeko geratzen den epearen herena ere.

#### **28.- Erreskatatzea**

Urriaren 30eko 30/2007 Legearen 262. artikuluen arabera, erreskatatuz gero udalak kontratua interes orokorrak daudelako kontzesioz zerbitzua kudeatzen jarraitu nahi ez duelako, udalak erabakitako alde-bateko erreskate honen kalte-ordaina 264.4 artikuluan aurreikusitako terminoetan kalkulatu da.

#### **29.- Balioa galtzea**

Kontratuak balioa galduko du, kasu hauetarako aurreikusten diren kasuetan:

- a) Kontzesionarioaren bahiketa jasota, beste antzeko kasu batzuetan arau-hausteetan eroriz gero berriro ere.
- b) Oinarrizko obligazioetan arau-hauste larriaren eroriz gero kontzesionarioa.

- Balioa galtzearen adierazpenak, aurreko paragrafoaren b) atalean aurreikusitako kasuan, kontzesionarioari alde aurretik ohartaraztea errekerituko du, eta zein akats dagoen adieraziko da.
- Kasu horretan, balioa galdu duela adierazi ahal izango da, zuhurtziazko epe bat igarotakoan, Udalbatzak zehaztuko duena, kontzesionarioari egotz dakizkiokeen akatsak zuzentzen ez direnean.
- Udalbatzak erabakiko du balioa galtzearen adierazpena, eta kontzesionarioaren kudeaketa lagatzea erabakiko du. Kontratuaren prezioa hilez hil ordainduko da, kontratua hasten denetik kontaktzen hasita, eta kontzesionarioak hileko fakturak egingo ditu (finkoak, adjudikazio prezioaren hamabirenari dagozkionak), eta faktura horiek zerbitzuaren arduradunak egiaztatuko ditu, eta hala badagokio, zuzendaritza organo aginpidedunak onartuko ditu, eta lizitazioa deitzea kontratua berriro adjudikatzeke.
- Ondorio horretarako, balioa galtzen duenetik hil bateko epean, kontratuaren justiprezio espedientea irekiko du Udalbatzak, kontratuaren klausula bat ere aldatu barik eta balio galdu duen titularrak esku hartuz. Akordiorik izan ezean, Desjabetzaren Epaitegi Probintzialak erabakiko du eta Nahitaezko Desjabetzearen Legearen jardunbidearekin bat.

Tasazioa erabaki eta, hala badagokio, Epaitegi Probintzialak onarturik, hil bateko epean oinarri hori kontuan harturik lizitazioa deituko du Udalbatzak, berriro eta kontratua adjudikatzeke, lehenago agintzen zuten Baldintzen Orrien arabera, eta balioa galdu duen kontzesionarioari entregatuko zaio lizitazioaren produktua.

Kontzesio bidez Zerbitzuaren gestioaz jarraitu nahi ez badu Udalbatzak, erreskate kasuan legokiokeen kalte-ordaina ordainduko dio iraungitako titularrari.

## **VI. TITULUA**

### **30.- Kontratua iraungitzea**

Kontzesioaren eta luzapenen epea bete delako, eta hautsi delako iraungitzen da kontratua.

Hauek izango dira kontratua hausteko kasuak; zerbitzua erreskatatzea, kontzesioak balioa galdu duela adieraztea, urriaren 30eko 30/2007 Legearen 200.6, 206, 207 eta 262 artikuluetan jasotako gainerako kasuak, eta gainera, orri onek aurreikusten dituenak.

Suntsiaraztearen ondorioei dagokienez, urriaren 30eko 30/2007 Legearen 208 eta 264 artikuluetan araututakoa hartuko du kontuan.

### **31.- Bermearen epea**

Kontratu honetan, egin beharreko lanen ezaugarriei erantzuteko, ez da berme eperik jarri.

Kontratua amaitzeari dagokionez, kontratua beteta dagoela ulertuko da, helburu osoa bete duenean kontzesionarioak, kontratuan esaten denaren arabera eta Administrazioarekin ados jarrita.

## **VII. TITULUA**

### **Pertsonala, materiala eta eraikuntza finkoak**

#### **32.- Pertsonala**

Kontratu honetako zerbitzua behar bezala emateko behar den pertsonala izan beharko du kontzesionarioak, eta Klausula Teknikoen Orrian esandakoa errespetatuko da.

#### **33.- Materiala**

Kontratutako zerbitzuak gauzatzean erabili behar den materialaren titularra izango da kontzesionarioa. Kontzesionarioak dokumentazio guztia izateko ardura izango du, indarrean dauden arauekin bat.

#### **34.- Eraikuntzak**

Pertsonala eta tresnak edukitzeko eraikinak eta bulegoak izango ditu kontzesionarioak Aretxabaletan. Horiek egokitzeko egin behar diren gastu guztiak doaz esleipendunaren kontura, bai funtzionamenduenak, lizentzia tasak, e.a. Eskaintza aurkeztean eraikuntza eta bulegorik ez badu, konpromisoa hartuko du zerbitzua martxan ipini aurretik eraikuntza horiek edukitzeko.

## I. ERANSKINA

### VIII. TITULUA

#### Proposamen ereduak

a.- Orokorra.

Izena:..... Helbidea: .....  
NA: ..... Non egina:.....  
Norbere izenean edo,.....-ren izena, helbide soziala (non)....., eta  
Identifikazio Fiskaleko Kodearen zk....., hauxe adierazten dut:

1.- Prozedura irekiaren bidez, ..... kontratazioari buruzko klausula ekonomiko-administratiboan eta preskripzio teknikoan orrien berri jakin dut, eta oso-osorik onartzen ditut.

2.- Nire ardurapean aitortzen dut, batetik, enpresa lizitatzailerak honek gaitasun juridikoa duela eta nahiko baliabide dituela zerbitzu hori emateko, zerbitzu hori emateko eskatzen diren baldintza espezifikoak jasotzen dituela eta, bestetik, indarrean dagoen legerian aipatzen diren debeku kasuetako batean ere ez nagoela sartuta.

3.- Adjudikatario izanez gero, onartutako orrien betebeharrak eta baldintzei lotuta, kasu guztietan, emango dut zerbitzua.

4.- Esandako guztiarekin bat, konpromisoa hartzen dut kontratuaren zerbitzua emateko, .....eurotan, urteko. (JARRI HIZKIN ETA ZENBAKIZ).

Tokia, eguna eta sinadura. LIZITATZAILEA.

b.- EAB denean, honela idatziko da proposamen ereduaren goiburua:

Izena:..... Helbidea:.....  
NA zk:....., ..... enpresaren izenean.  
Helbide soziala:..... IFK zk:.....

Izena:..... Helbidea:.....  
NA zk:....., ..... enpresaren izenean.  
Helbide soziala:..... IFK zk:.....

Izena:..... Helbidea:.....  
NA zk:....., ..... enpresaren izenean.  
Helbide soziala:..... IFK zk:.....

#### ADIERAZTEN DUTE:

Enpresen Aldi baterako Bateratze moduan eratu dira, partizipazio hauekin: ....% eta .....%, eta enpresaren ordezkari edo ahalorde izendatu dute.....; ahalmena izango du eskubideak erabiltzeko eta kontraturik sortzen diren betebeharrak betetzeko, kontratua iraungi arte. Eta .....

#### AZALTZEN DUTE:

Transkribatu proposamena orokorreko (1etik 5era) ereduaren agertzen diren puntuak.

2) Atzerriko enpresak biltzen direnean lizitaziora, puntu hau erantsi behar diote proposamen orokorreko ereduari:

6.- Espainiako epaitegi eta auzitegiaren jurisdikzioaren esku jartzen naiz argi eta garbi, kontratua interpretatu, aldatu, suntsiarazi eta iraungitzearen arazo guztietan.

## **HAUR HEZKUNTZAKO ZERBITZU PUBLIKOAREN KUDEAKETA ESLEITZEKO, KLAUSULA TEKNIKOEN ORRIAK.**

### **I. TITULUA**

#### **Kontratuari buruz oro har**

##### **1.- Helburua**

Orri hauen helburua hauxe da: Aretxabaletako udalerrian (hezkuntza zerbitzua) haur eskolako udal zerbitzuaren (0-3 urte bitartekoa, haur hezkuntzako 1. zikloa) ustiaketa esleitzeko, lizitazioa arautu behar duten baldintza teknikoak arautzea; jarduera hori, berariaz, beregain hartzen du Udalak. Gizarte eta hezkuntza zerbitzua da, **zeharkako kudeaketa erregimenean** emandakoa, **kontzesio bidez**, eta eskolaurreko hezkuntza ematen dio haurrari. Horretarako, pedagogia teknikarik egokienak erabiltzen dira eta haurraren kultura eremuan kokatzen da hezkuntza hori.

##### **2.- Jardun eremua**

Komunitateko zerbitzu moduan, Haur Eskola zabalik dago Aretxabaletako herriko haur guztientzat, eta komunitate osoaren beharrak bete behar ditu; plaza kopuruak baino ez du mugatzen.

Udalerriko eskariari erantzun eta gero, eskualdeko udalerrietako haurrei eman ahal izango die zerbitzua Zentroak.

##### **3.- Ordu-tegiak**

Ordu-tegia: goizeko 7:30etan hasi eta arratsaldeko 6:30ak arte.

Orientazio moduan hartu da ordu-tegi hori, eta azken ordu-tegian aldaketak izan daitezke, hasierakoan nahiz bukaerako orduan.

### **c) TITULUA**

#### **Hezkuntza eraikinak**

##### **4.- Hezkuntza eraikinen ezaugarriak**

a) Xedapen orokorrak 1004/1991 dekretuak ezartzen dituen gutxieneko baldintzak jaso behar dituzte eraikinek.

- Haur eskola eraikin independenteetan kokatu behar da, eskola erabilerarako bakarrik direnak, Errege Dekretu horretan jasotzen diren salbuespenen kalterik gabe.
- Indarrean dagoen legerian adierazten diren bizitzeko eta segurtasuneko higiene, hots baldintzak jaso behar dituzte eraikinek, eta gainera, Errege Dekretuan ezartzen diren baldintzak.
- Ezgaitasun fisikoak dituzten ikasleak sartu-irten eta ibiltzeko moduko arkitektura baldintza batzuk eduki behar dituzte eraikinek, ezartzekoa den legerian xedatutakoaren arabera.
- Dekretuak adierazten duen bezala, eskola kopurutzat joko da, zentro batek aldi berean har ditzakeen haurren kopurua, irakasteko eskatzen diren kalitate baldintzak bermatu daitezkeen.

b) Xedapen espezifikoak.-

- Zentroak gutxienez 3 unitate eduki behar ditu eta baldintza hauek jaso behar ditu, eraikinei eta baldintza materialei buruz:

1.- Hartarako bakarrik erabiltzeko diren lokaletan kokatzea, eta kanpotik sarbide independentea izango dute.

2.- Ikasgela bat unitate bakoitzeko, eskola postu bakoitzeko 2 metro karratuduna, eta gutxienez 30 metro karratu izango du. Bi urtetik beherako haurrentzako ikasgelek sail bereiztuak izango dituzte haurrak atsedena hartu eta garbitzeko.

3.- Leku egokia janariak prestatzeko, urte batetik beherako haurrak izanez gero, eta indarrean dagoen araudiak zehazten dituen ekipamenduetarako edukiera izango du.

4.- 30 metro karratuko erabilera anitzeko ikasgela bat, jantokirako ere erabili ahal izango dena.

5.- Jolasleku bat bederatzi unitate edo frakzioko. Zentroak baino ezin erabil dezakeena; azalera, ezingo da inolaz ere izan 75 metro karratu baino txikiagoa.

6.- Komun bat ikasgelako, 2tik 3 urtera bitarteko haurrentzat; ikasgelatik ikusi eta sartu ahal izango da, eta bi konketa eta bi inodoro izango ditu.

7.- Komun bat langileentzat, haurren ikasgela eta komunetatik aparte, eta konketa, inodora eta dutxa izango ditu.

8.- Zuzendaritza, idazkaritza eta baimendutako eskola postuen kopuruari egokitutako neurriko irakasleen gela bat izango ditu eskolak.

### **5.- Haurren ratioak, ikasgelako**

Urte baino txikiagoak diren haurrentzako unitateak: 1/6-8.

Urte batetik 2 urtera bitarteko haurrentzako unitateak: 1/10-12.

Urte bitik 3 urtera bitarteko haurrentzako unitateak: 1/14-17.

## **III. TITULUA**

### **6.- Maisu-maistren eta langileen titulazioa**

Maisu-maistrek emango dute eskola, dagokion espezialitatearekin, eta aldi berean, hezkuntza laguntza egokia emateko behar den moduko kualifikazioa duten beste profesional batzuk izango ditu enpresa kontzesionarioak, abian dauden unitateak baino bat gehiago.

Sei unitate edo frakzio bakoitzean, Haur Hezkuntzako maisu-maistra bat edo eskolaurreko espezialista den Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle bat.

Hauet osatuko dute aurreko atalak aipatzen dituen langile kualifikatuek: Haur Hezkuntzako maisu-maistra espezialistak eta Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasleak, haurtzaindegian espezialistak.

Artikulu honek aipatzen dituen langile kualifikatuek atendituko dituzte uneoro haurrak.

Hezkuntza beharizan bereziak dituzten haurrak integratzeko behar diren giza baliabideak eta laguntza baliabideak emango ditu hezkuntza administrazio aginpidedunak.

Gutxienezko izaeraz Orri honetako 5. puntuan deskribatzen diren eta haur eskolako zerbitzua egiteko ezinbestekotzat jotzen diren ondasunak atxikiko zaizkio kontzesioari.

## **IV. TITULUA**

### **7.- Haur eskolaren hezkuntza zerbitzuaren prezioak.**

Arexabaletako Udalak ezarriko ditu egoki irizten dituen prezioak.

- Ikasturtea irailaren lehen egunetik uztailaren 24era arteko izango da, eta abuztua ez da irakasteko

edo zerbitzuko hilabetea.

- Zerbitzu honen erabiltzailea 11 hilabete ordaindu behar ditu, eta araudian adierazten den legez ordainduko du.

Janaria, jantokia, garraioa, e.a. moduko laguntza zerbitzuak emateko, nahiko langile behar da, eta zerbitzu osagarri horiek emateko agintari aginpidedunek ezarritako arauak jarraituko dituzte, eta enpresa kontzesionarioak jarriko ditu zerbitzu horien prezioak, emandako zerbitzuen autofinantzaketako irizpideak jarraituz, eta prezio horien berri emango dio Udalari ikasturte hasieran, jakin dezan eta oniritzia emateko.

Diru iturri mugatuak dituzten familientzat, gizarte hezkuntza eta laguntza tarifaren prezio pertsonalatuak ezarri eta onartu ahal izango ditu Udalak; proposamen horiek Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Sailak aztertu eta proposatuko ditu, zentroko Zuzendaritza Batzordeak aztertu eta definituko duen kasuistika (Erregelamenduaren 5. art.).

Zerbitzua abian jarriko da irailaren batetik aurrera.

## **V. TITULUA**

### **8.- Kontratua berraztertu eta aldatzea**

Esleitu den zerbitzuaren ezaugarriak aldatu ahal izango ditu Udalak, jendearen intereseko arrazoiak daudenean, eta baldintza ekonomiko-administratiboen orrian jasoko dira berraztertu eta aldatu beharrekoak.

Zerbitzua abian jartzeko aldiari eta gero ere bai, aldaketak sor daitezke zerbitzuari neurri batean eragiten diotenak eta haren gastu aldagaiei buruz bakarrik.

Kontratua aldatzeko proposamenak egin ahal izango ditu esleipenlariak, zerbitzua hobetzeko edo handitzeko, edo zerbitzuaren kostua murrizteko, Udalaren aldetik proposamenak aztertu eta agian onartzekotan.

### **9.- Zerbitzuaren jarraipena**

Udalak ahalmena izango du haur hezkuntzako zerbitzuarekin zuzenean lotutako jarduerak ikuskatzeko, kontzesionarioak bete behar dituenak egiaztatzeko.

Kontzesioaren baldintza teknikoak betetzen diren edo ez ikuskatu ahal izango du Udalak, kontzesioari atxikitako eraikin finkeko egoerari buruz nahiz zerbitzuaren gorabeherei buruz (ordutegia, tarifak, e.a.)

Zerbitzua kanpotik ikuskatzeko, Administrazioaren aldetik, etengabe barrutik ikuskatu behar du kontzesionarioak.